



BOOKTEGI

beltxarga urdin  
edo  
beltxarga beltz

ISABEL  
HUALDE

itzulpena: Iñaki Bastarrika



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

ISABEL HUALDE

beltxarga urdin edo  
beltxarga beltz

*Ba al da porlanazko basoan lumarik usoarentzat?*

Itzulpena:

Iñaki Bastarrika

I

AHOTS ISILA

## Bi maiatz

Lasaitasun gozatsuz brodatzen duzu neure arrea.

Hegalak errausten ditu (dekoratua hautsi zen)

beldurretik gerratik denboratik gerratik

itzulitako txoriren batek

Saritísima eta bioleta

mendeak eta mendek.

Begira amari

nola tolesten duen gona

ordu hotzei lapurtua

goiz-argi eta aharrausietako inurritxo.

Udak ebatzi egiten du

(maitatzeko duen era)

ene txirikordak harrotzen ditu.

Neskato bat aurkitu dute

haren ahotsa mutu ibai ertzean

haren begiak lazeriatuak

odol arrasto bat ama

susto bat

otsoen otsoen gosea

Eta Parisen iraultzak

Jean Paul eta Simone sutan barrikadak

eta 68ko maiatza.

# Emakume zaintzailea

Eta zertaz mintzatuko naiz

zuetaz ez bada

egun batean sitsak bezala hegoei eragiten diezue

maitasun partekatuaren

ziba ezinbertzeko

hainbertze hutsune betetzeko

gure bizitzetan...

maitasun zerutiar apetatsuak

bedeinkatutako kromosomok

tira egiten duzue ene soketatik

neure azala zurrupatz

azken izerdi-zuloraino

dantzan

inozentziaz eta aingeru ahotsez

tristeziaren harpa tinkatzen duzue

-arimaren armoniarik eza-

gaur sakon finkatua

gauaren sabai altuan

eta neure burua

galdatzen duzue

munduarentzat

zilarrezko bandejan.

## Liburutegian

Haren eskua sutan da  
orrien histasunean  
nabaritzen du

izpilikuz betetako landa bat  
izan daitekeena.

Emakumeak, ezagutu sailkatu zenbakitu egiten du:

kode sekretu bat  
zakur zaunkarien kontrolerako  
(batzuetan amesgaiztoak bidaiaz doaz hotzik  
betazal itsuko zilarrezko tren baten  
itsutze-argian)

edo luminaria txikien lerro bat  
arima nahasien bagoian.

Han begiralariak istorioak sortzen ditu  
eta gerarazten  
gauaren itsasgoran  
zati jangoseegi edo  
gozoegien eragina

eta haratago usoen hegaldi batek  
sakabanatzen ditu hitzak  
                olerkariak haizean utzi zituenak  
zakur zaunkarien atean.

Emakumeak adoritzen du une isila  
salako zehar-argian  
sorgin-orratzen hautsa eskuetan.

*Sorgin-orratzek eralda al dezakete  
inoren arima?*

Ordenatzen-sailkatzen-zenbakitzen duten sorgin-orratzek?



## Beltxarga urdin edo beltxarga beltz

Tripa hutsen min bat bezala

kexatzen da Elisa –itomen arraroa-

Arrazoiaren lepo harroaz

Hutsa geratzen da eta hegorik gabea

hegorik gabea geratzen.

Hegaldi

kabriola

itzuli

edo oihu gisa

itzultzen da bere gorputzera Elisa

beltxarga beltz edo beltxarga urdin

Sostengatua irmo zeruaren kontra

itzultzen da bere ahotsera

isilduaren ahots sakon isilera

Kua-kua ahatetxo beltzak habi bat

aztarkatzen du

gune

sabel

adar

zuztar

edo munduko leku.

## Hiru ahizpa

Hobe urdin turkesa

-dio Luisak-

nik ezin dut sabelean sortu

itsasbelar berde elikagarri doiak

zilborra gorantz

eta lursugea.

Oh, ez, -oihu egin du Sofiak-

*shuvaratri* erraten da

gauak

janzten ditu bere mediak

lentejuelak eta entidadeak

ez gaitu gehiago babestuko zeruak.

Stevenson biluzik pausatzen da

zure begien uhartean

-xuxurlatzen du Maryk-

aztarka eta aztarka egiteko gosea

hainbat altxor aurkitzeko

kakalardo argitsu bezainbat.

Agertokian

Coppolak

argiak pizten ditu

(elkar musukatzen dute)

zelatariak zeuden teilatuan.

## Dama zuria

*Heroínas* erakusketa

Thyssen Museoa. Madril.

Eta bitartean

jainkoak izatera jostatu ahal baikara

gu geu izan ordez

txoriak at

eta dama zuria

beti dago dama zuri bat.

Oroitzen dut

estrofa bat NewOrleansen

dena begi eta argi argi eta begi

azal beltzaren gain

eta perla zuri

errabiatsu blusapean biluzteko

ez zenegon gaiztotasunik

gorriz margotzearen egintzan

Bai bihotz mutu ugari!

William Withehouse

suaren zirkulutik

eta kristalezko bolatik at

eta Zezilia azal eta itzal

dena hautsia barrutik

elur zuri emaztegai herio beltz

Zezilia

zuri beztitu zuten usoek.

## Batetik bertzera

Iraila norbaitek irratia piztu du  
gela batean  
(izan zen bat Paradisu deitua)

gaua da  
fakturak ikastaroak zure bizitza  
dena paketatua  
idatzi baten atze okerra

Tok tok!  
esna bakartiren bat edo itzala  
lekuren batean  
zerbait edo norbaiten hutsa sentitzen?

Amets on bat  
maitalerik onena astiro astiro  
sartzen poema gisa

Ziutateak estratuak distirak eta zu  
zabal-zabal berrogeita hamar eratan  
begiak ixtear  
goitik behera isuriz  
eta bihar arte bihotz.

Bart hotz egin du Ness lakuan  
-odol beltzeko tantak euripean-  
zuzizko neskatzak dardar hotzik  
zeruari begira.

II

## BERE ARGIA FINKATZEN DU

*Kontua da gainazalen artean beldurrik gabe irristatzen jakitea*

ChantalMaillard

## Airearen azalaren gain

Neure eskuak aireko hondarren gainean  
... desagertuko balira legez

Emana izan zaigu amil-leizeetatik erauztea  
lapislazuriaren kolorea  
edo libertate trazuak  
zilarrezko gaindegian dindilika daudenak

(zaldia trostan doa  
bere izarra daraman kostelazioaren atzetik  
eta usoa benetakoa da  
eta hegaldatzen da maite ditudanen  
eta ez ditudanen gain)

Emana izan zaigu maitasuna  
aingeru baten hatsa  
begietan gatza dugun egunetan  
eta nola ez  
betirako ilargia  
aire mututua  
aitorpenen lodia zeharkatzen

munduaren oskola ezkutatuko balitz edo

airea airea herrestan airearen azalaren gain  
olerkari sutsuen hitzaldia arrastan eramanez.

## Ilargi-orria

Leize-zuloaren barnean  
mirariak bata bertzearen ondotik

saguxar itsuek bere ezinegona darabilte  
-ate mugikorren irudia-  
gauaren kearen gain

Estalaktitak eta estalagmitak  
jaisten dira edo altxatzen  
elkarri lotuak  
bere mundu ikusmolde berezian.

noiz arte hotza  
galdetzen duzu  
noiz arte pitzadurak hotza  
eta negu oihukatzen duen bihotz hau  
noiz arte.

Shhhh. Hatz bat ezpainetan jarririk  
lerrokadak ezabatzen ditu  
enigmen zoladura gara  
bertze erro batzuk finkatzen diren paisaia  
nork erantsiko gaitu behelainora?

Zeruak ilargi-orri baten dirdira zorrotza proiektatzen du  
elurrez estalitako adar baten  
harat-honat geldoak  
eklipsatzen gaitu.



## Bizitza bera idazle

Ez saiatu poetarena egiten  
bizitza bera da idazle  
urteak hegan doazen bitartean  
banbuzko abanikoetan  
edo arrozadietako dirdira metalizatuetan.

Bizitzak mur-mur.

Eta zer egingen diozu.  
Nahitaez errepasatzen duzu  
maitatu zenituenen biografia hautsia  
azaro gehiegia nostalgian  
areagotzen duten uhartediak

gehiago balio ez dizuten  
poemen gain krespak jartzen dituzu  
zeren pailazo tonto batek  
barre eragin nahi baitizu

esna itzazu txolarreak  
pekatu guztien jatorrian  
eta heltzen diozu unearen berotasunari  
hori zilborra izanen balitz bezala  
arnasa hartzen duzun  
munduaren amaierako azken eguna.

# Entziklopedia

Zenbat aldiz nahastu zen lengoaia

kangrejuaren ibilbidearekin

atzera beti atzera

iker dezagun

itzalak ematen dituzten

txingar eta errautsen gain

hega zaitezte narzisook!

Entziklopediak maitatu ahal balu bezala

edo ni koroatu

edo basoen miresgarria eskuratu

erretzen garenean.

Eta berpiztu behar duzu

begira zeure buruari

hitzen purutasunaren zaindari

eraldatzen eta oldartzen diren

bihotzen jitoan.

## Paisaia

uraren konplizitatea itxarotea

sekuentzia laburretan

likidotasun hutsa

tanta batek arnasa hartzen du

bertze batek ebakia

(oraindiklepokoak ene perla guztiak dauzka)

Sugea zelatan

Egia al da ni neu bakarrik izan nintzela tentazioa?

Itzalargia irekitzen da

eta zalantzaren mendebalak estaltzen du

bidegurutze hitzaren lekua

paisaia hitzak hartzen du.

Gorputz eta hitz gara

laute artisau

on egiten du

gauaren danborrean

igeltsozko ekaitzek arrasta gaitzaten uzteak.

## Ilargia sonbrairutzat zeukan emakumea

Ohituratzat dauka euri-pesia agurtzea.

Euri jasan zaldun zoroek  
zeharkatzen dituzte alanbre-hesiak  
irudimen txit handiko  
begiratu erlauntza.

Alfonbra gorriaren gain dantza egiten dute panpinek  
segurtasun-lerrotik harago  
birikek eusten diote  
zer egingen diogu tradizioa da  
ez obeditu?

edo bibolin amestien  
orquestra batean sartu.

Begirada hautsien lurra hautsita  
sonbrairutzat ilargia daukan emakumeak  
ez du presarik

kaiola estutik irtenda  
hedatzen du bere urrezko soka  
nahi baduzu  
hasperenen bat  
jakinduria zaharrarekin  
askatu haren kometa.

Ekaitz guztiak pasatzen dira  
eta beren argia ezartzen.

## Ispilurik gabeko etxeak

Baina zein txikia den hiria

koloreen bereizketa zentzugabeen:

etxeorratz atiko etxola

-Kane hiritarra-.

Ene seme-alabek azalean gordetzen dute

gauerdiaren heiagora.

Delikatuki zizelkatu zituzten

ispilurik gabeko etxe batean

zertarako edertasunaren alferrikako sakabanatzea.

Zatoz

gerorako utz dezagun hitza

berehalako berrien

uholdean sakrifikatua

(orain zirujauak betazal mindu

baten gandorra konpontzen du)

hain da premiazkoa arrosen konspirazioa...

gugandik jarriotzenden urjauzitik edatea

musika hutsean eta harearen arintasuna

-zekale itsasoak-.

Zatoz

proiekta dezagun eguzkia.

Maitasunak eratzen gaitu.

## Urte sasoién haserresua

Murgiltzen dena leherketetan itzultzen da.

Badakit garunaren eta odolaren marmarra

harri egiten duen eskorpioaz

badakit kolpatzen duen hitz desegokiaz

badakit isiltasunez

eta haien nota barnekoi hautsiez.

Jaun hordi

orkatza erraldoitzen da

urtaroek bizkortzen duten

haserresu kondentsatuan

nik maite dut eta askatzen naiz

eta zeharkatzen dut haren hiria.

Murgiltzen dena leherketetan itzultzen da.

Sugea gure etxean bihurrikatzen da

eta zimenduak mugitzen ditu

gabon

ordua da gorputz

epelen unean

ez-zuzen eta eder

jainko eguneroko bat legez

gaur euriarekin batera sartu zara.

## Eguerdi gorria

Eguerdia...

baten batek bere geografiaren mugak hedatzen ditu hegaldirantz.

Une ezin hobea dirdira gogoratzeko

aingeru aurpegi hori

aranak xurgatuz.

Musika-kaxa irekitzen duzu

eta telefonoak abandonatzen dituzu.

eta oh bai

begira nola dauden soberan

aitzakiak janzgaiak hitzaldiak

azerikeriaren letaginak sobran daude

ispiluaren bestaldera erortzen dira.

Berjaio

gosaldu aurpegi hori haritxo

elutx lubakitua aranak

eguerdi gorri.

# Eguzkitan

Luzatzea

mehe

norberaren loaren

kontzientziarik gabeko biderkatzean

auhen ahula ahotsen disoluzioan

bizkar makurtua

katu baten

indargetasun hazkor batekin

ez dago presarik edo larrialdi-argiak

bar-bar eta hezetasunak soilik.

Udako izerdia

egarri perla hitzetan

irristatuz

maitasunaren ezpatarik gabeko dardara

haren hats biluzia.



## Aizto eta txokolate

*Soilik maitasuna errebeldia egintza gisa*

UbertoStabile

Gizonezkoak dio betirako maitasuna  
haize-ahobizia  
hatzen artean erabili du  
adar-ukitua haren azazkalak  
eta hitz batzuk zintzilikatzen ditu sahatsean  
bere ahotik.

Ez dio emakumezkoak  
zauritzen nau zure ilargi ikasiak  
aizto eta txokolate  
sorgin-argi doi  
zure poemen  
adierazpen  
irristakorra.

Acapulco...  
ez duzu aurkituko aingerua  
haize ozeanikoetan.

Zergatik ez Stabile  
eta haren su-lerroa?  
eta hitz bat:  
udaberri edo bidazti edo New York  
edo zoradura edo padura.

Etorkizuna orain da.  
Etorkizuna orain da.

## Harri bihotz

Gariak aieneak aletzen ditu haize-kontra  
haizeak txistu eta bakardade-isuri  
aizkora zainartatua  
urez harriaren aurka  
harri bihotz.

Gerlari batzuk  
ez dira sekula itzultzen gudalditik  
baina zuk begira eguzkia  
*on a dit quelquejour chéri.*

Bihotz laino erro harri  
garia bakardadea aletzen  
aldare zakar bat jarri genuen bizitzarako  
erre egiten zuen bizitzak?

ahantzi zenuen berpizte-ogi izatea  
lurretik aldendua alkitran usaina duzu  
galtzen zara espiraletan  
biraka-biraka baitoaz eta erotzen  
itzuli gabe gune batera

hegaztiak zure ariman behin batez...  
ahalmen amaigabea beren destinua moldatzeko.

Une argitsuak  
berriz lehertzen dira soroak  
bertze dirdira bat  
taupadak bertze batzuk.

Sute berriro izanen da udaberri.

## Laranjondoan hilezkortasuna

Egutegiak erabili gabeko zapatak erakusten ditu  
mugurdi-haragia eta oliba-mermelada.

Zeren hil baikara eta itzuli  
etengabe apaletako isiltasunera

modu izugarrian ekaitzek ekarri zuten  
nostalgiaren usaina  
elurrak bideak desegiten zituen  
eta izotzak hausten  
harrien hezur gogorra.

Zure buruan bilatzen duzu bolborategia harmonizatzea  
suzko maleta estrainio hori  
(bandejaren gain sutan daude  
Salomeren  
bular biluziak)  
eta premiaz eskatzen diozu zeruari  
laranjondoan hilezkortasuna.

Egiaz erran dezakezu  
hau izan da ogiaren eta ene odolaren herrialdea  
gaur amaitzen da  
hatz erakusleaz adieraziriko heriotza  
zuri eta beltzaren aro deslabatua

bizitzak patruilatu egiten du bihotzetan.

## Inurriak lo egiten duen txokoan

Bakeak neutraltasuna  
galtzen du kalexka estuetan  
foro artifizial eta antipoetikoetan.

Inurriak lo egiten duen txokoan  
bertze batek bere fusila altxaten du  
baten batek paradisuak esploratzen ditu  
horma arrailduetan  
*leschansons a la nuitcrient a ma tête  
enécrivantdescheminspleinsd'oiseaux.*

Maitagarriak lo egite duen zokoan  
bertze batek edertasuna nahi  
galburu zilarkarak garaipen  
edo aurkikuntza.

Ez da egia ezta ere  
inurri guztiak  
alargun dirautela  
bolbora artean

Zernahi delarik musua  
nebulosa edo zirkuko hondamendia  
maitagarriak idazten du  
*mesedez  
atera nazazue abandonu gozo honetatik.*

Orriz orri  
eguzki-sistema bilatzen dut exilioan.

## Lepo artekatsua duten zisne gorriak

Entzuna duzu erraten  
gauzak eta arrosak hiltzen direla.

Baina nik erortzen ikusi ditut  
isilean edo abarrotsez  
duten izaeraren arabera

erori eta hautsi mugarik gabe  
gauzak lurraren kontra arrosak  
lepo artekatsua duten zisne gorrien antzera  
petaloak desegiten  
argitsu diruditenegunetan.

Eta ford bat pasatzen da.  
(Richard Gere behelaino artean)  
bere klaxonarekin doi ukituz  
prostituta batzuen  
papar izoztua.

Sinestezina da ze ubera uzten duen  
abandonuak gauzetan  
bitartean... ipurtargiak ilunpean geratzen dira  
hirien bidegurutzetan  
eta gora egiten dute teilatuetako argi-zulora  
ametsekin eginez  
erraz digeritu daitekeen mataza.

Gauak argia bilatzen du ipurtargietan  
ipurtargi poetak  
ametsak idazten  
Esne Bidean.

## Zeramika hautsien parkean

Zeramika hautsien parkean

festa-kakaraka prestatzen du hiriak

baina zure bihotza ez dute gonbidatu.

Arriskuak dira zentzudunak

hain arriskutsuak dira zentzudunak...

Isadora ederra

inork ez daki aldi txar batek zer duen atzean

inork ez du galdetzen poxpolo baten asmoaz

zure barrea eta zure gorputza hausten dira aurrietan

baina zuk distira egiten duzu.

Neure sutan erretzen naiz

ba al daki inork norantz hegatzen diren neure begiak

argiak itzali eta arrosak hiltzen direnean?

Festa-kakaraka prestatzen du hiriak

baina neure bihotza ez dute gonbidatu.

## Paradisu

Memorian ausentzia  
sugearen perla  
bihurritua idulkipean

Evaren begi ilunek  
xurgatzen dute gaua eta Nigana dira itzultzen  
une perfektu bat islatuz.

Ikusiko bazenute nola haien begiek itsutzen dituzten izarrak  
Ez al nuke nik emakumea maitatu behar horregatik?

Orduan  
esadazue  
zer bisio izugarri sartzen den haren ariman  
mina diseinatuz  
zer legek edo torturak egiten duen gugana  
zer hitz zaunk edo dekretuk  
zer kondenak.

Hitz egidazu argi-txori  
misterioen mundu honen ziurgabetasunetik

zure aurrean makurtzen naiz  
baina ez zaitetz gehiago hegaldatu bihotz  
ez mokokatu jainkotasun-irak pozoindutako  
sagarrak

ezin dut gehiago jasan dantza  
suiziden askatasun ezin baketuzkoa.

## Bulldog

Argi-malutak jausiko dira bihar soroen gain.

Eta zer leihoak ixtea  
gela ospeletan  
edo algebran bermatzea  
edo arrosen eldarnioan.

Bulldoga hatsankatzen da  
ezinegonak ereiten ditu  
gau mestizoan  
ihes egiten du  
Bianca  
sorgin-argitik  
parkeetako ertzeetatik urrun  
non azaltzen diren kristal hautsiak  
ez hegoalderantz  
hegoaldean itzalak hazten dira  
atzamarkatzen dute eta orratzak sartzen  
eta lizunkeriak txistukatzen ditu  
filibustero tren batek.

Zenbat kostatzen den berriro lehen taupada...  
soka tenkatu da zona gorrian  
eta beharrezkoa da harriak musukatzea  
edo ederrrez zizelkatzea.

Ikusten duzu  
desegite hondatian

eta adarrak ateratzen zaizkio.

Argi-malutak jausiko dira bihar aintziren gain.



## Larrainetik urrun

Nahi bazenu  
aska zenitzake ezinegon-beloak

horrelako zerbait seinalatu  
haizez okertu diren errailak bezala  
(inurri txikiek amesgaizto batean lez  
marrazten zuten  
eskolarako bidea).

Tiro batez bota dezakezu  
gora gora dioen noria-motorra  
saia zaitez  
egin dezakezu.  
Bisturiz sakatu muinoa  
non belarra ekiten dion  
desberdintasun usain sendo batekin.

Urrun aroa non agureak  
bere hazia astintze zuen  
-amaren esne zuria-  
printzesa baten aho mututuan.

Leku bat trazatzea  
non espiritua altxatzen den nasaiki  
uniforme urdinen perbertsioaren gain  
oinuts gau baten hasiera  
babestea.

Horrela ez dago tokirik  
hil-maindireen artean negar-zotinka aritzeko.

Eta gainerakoa... aingeru hazi gozoa  
ezpain irekietan isuria.

## Kartoi-beldurra

Berea duen herrialde batetik ihes egiten du

kaiolatu lezake koadro lokartzaile batean  
sekretuen armazoi arin  
poeman mimetizatuak  
eta itsasora bota.

Baina itsasoa emakumearen barnean bizi da  
horretaz ziur dago bera  
itsas-lamien trantze-kantuan  
astintzen du eta eransten da  
bere enkantamendu kaiolara.

Abandona lezake basoan  
non dirdaitzen duen hostoen erne-indarrak  
altxatu musika zutabe bat  
afeiterik gabeko hanken desafioan  
(inurritxoa joan-etorrian eta loreak ilean)

eta atsedean hartu handientsu  
bere bihotzaren bulboaren gain.

Itzul liteke berea den herrialdera  
eta oinak desitsasi  
guztiz belzturiko  
sineste-tapiz zaharraren gain

txoriak eta kometak lasterka biluzik  
beldurra zentrifugatuz  
emakume  
zentrifugatuz kartoi tranpa beldurra  
k a r t o i a.

## Ikus nola kristaltzen den ilargia

Hegazti migrari gisa hegoak astintzen dituzu  
ezagutzen dituzu aldeak izerdi-zuloak pultsazioak  
gorputza gorputzaren gain  
eta txoriak lehertze gisa  
ebakitzen dituzu ene azalean

baina atera gaitzen  
jar dezagun soinean  
euriaren gabardina indefinitua  
zure begiratua gaur nahi dut zabaldu  
errekatik harago  
armonizatua baita  
txitxarren kantuarekin.

Begira nola kristaltzenden ilargia  
bere misterio funtsezkoa marrazten dizu  
argi bai argi  
ez izan beldurrik  
gaur ez du hautsiko zure arima  
haren aho ikusezinaren isiltasunak

errusiarrak amerikarrak  
ez dakit  
zoro egonezinak sutan  
etengabe hozkatuz beren zuztar eta lurraldea.

Bécquer hil da

III

## TXANO GORRITXOAK

*Nahi dut hautatu izaeraren diamantea.*

*Sagarrari neuk eman nion lehen hozkada.*

*Neu izan nintzen lehena.*

KabitaSinha

## Nahikari

Ez aipa orkideak  
ihiak bezala loratzen direnak  
zutoin berdea makurtzen dutenak  
iraultza baten itzalean.  
Puruegia.

Nahikarik gaua sintonizatzen du.  
Gogora ekartzen du laranjen zaporea  
ezkontza baten usain gazi-gozoa  
Yangtsé-ren ertzean.

Hau nahi dut  
maitasunaren memoria piztu  
eta ez nazala inork seinala.

Zuen  
egunsentiaren aldekoak  
barre egiten baituzue  
dardar egiten duenaren hondakinen gainean

agurtu neure partez  
intsekturik txikiena.  
Esaiezue  
Nahikarik gezurtatzen du uherdura  
eta ur loa.

Zutabe eta ke  
emadazue distantzia  
harri koxkorak haretik bereizten dituen.

Nahikari apeta izan zen.  
Ametz eskurakaitza.

## Txanogorritxoak

Gauaren irekite sorgortuan  
dialektoak errebelatzen dira.  
euriak hezetutako lokatzean tatuajeak  
edo oinatz ( 36 zenbakia) batzuen oihartzuna.

Batzuetan erauntsiak desbideratzen du kanta.

Hare-egarri den errekaren  
melodia astintzen baduzu  
otsoaren ulua itzultzen da sendo.

Aurrera Txanogorritxo  
lur hitzun estrainioek  
enmarkatzen dute basoa.

Ibilbide argiztatuak  
begiramenik gabe hedatuak  
sorgin-orratzen hauskortasunaren pean.

Zabiltza zabiltza pasea itzazu zure uhindurak  
modako kruzeroen  
eta izar-andamioen artean.

Aurrera  
printzesa  
kontuz  
takoiak.

## Isilik...zinerrota martxan

Nork nahi zuen jakin  
ea eskultura perfektu hori  
zeinaren gainean atsedean hartzen zuen eguzkiak  
emakumea bera zen udako jainkosa jantzian  
ala bigarren mailako aktorea  
belaunikatzean doi  
paper nagusia lortzeko  
bere bizitzako historian.

Isilik..., zinerrota martxan.  
Inork ez ditzala uki bere gune ahulak  
inork ez dezala disparatu edo deskargatu flasha  
orbainen gain  
inork ez diezazkiola hankak zabaldu edo itxi  
malenkoniari  
haren haragia fresko mantenduko dugu  
hurrengo udazkenara arte.

Nork nahi du jakin  
joera duen suizidiorako edo erailtzeko  
egarri den edo logura  
urguilu pixarren bat  
bere kaxemirezko jertse urdin panparroia-  
ren pean.

Hori da utz diezaiozun emakumeari arnasa hartzen  
harik eta nakar zurizko ilargi hori...  
Oh, bularra aguroegi lehertu da  
eszena zikinduz  
begira nola odolusten den eta darion.

Erne kamera.

Isilik..., zinerrota martxan.

## Maria

Mexikon logirotua  
zalantza existentzialen  
sonbrairu handi baten pean.

Abandonu estasi gau intsulina edo crac gaindosiak  
eragindako harrimenetik desagertzen zara.  
Heriotzak azal-ukitu zaitu  
ofizinizta mozorrotua  
itzulerarik gabeko langabetuen ilaretan  
paperak miazkatuz eta miazkatuz.  
Eta pixka bat Iparralderago  
bakardadea  
*Repsol*-ekin klimatizatua.

Isola isola itzazue ongi leihoak  
zuen bihotz-taupada nagia.  
eta pantaila biratuz  
Maria  
zuri begiak iltzatzen  
ahoskatuz  
astiro  
HEGO hitza.



Non geratzen da  
hegaztien ibilbide zoragarria  
bidaiak irlanda padurak haien azaletan

*Maria ederra* deitzen diozu  
lorik ezin den gauetan  
airea aingeru burbuila haren gorputza  
plazerek akitua  
elurra ahanzturen hauts zuria  
haizeorratz eroa  
beti Iparra seinalatzen duena.

Promesen maitasunarekin  
erretako  
neskatoak  
arnas dagi  
bere azken isiltasuna  
hamaika zalantza existentzialek  
egindako sonbrairu handi baten pean.

## MaryPoppins

Suak norbera arrastan eramaten uztea  
norberaren kontua da.

Nork daki izan nintzen soilik itzal  
kartoizko panpin  
kondaira baten paretetan proiektaturikoa.

Ene aurpegia galtzen zen  
aireko tranpen artean  
TwiggyBarbies  
izotzetan zizelkaturiko panpina adorableak  
plastikozko bihotz.

Sahats negarti eroso jarria  
lokartuarena egin nuen  
baina haizeak ukitzen zuen haizeorratza  
norantza guztietan.

Eta hor dator txistu eginez latentziak izerdituz  
tximini-garbitzailea  
(tximinietatik  
ke artean sartzen dira katuak  
zentzumenen men ez egitea  
eta begi beltz hain ilun horiek  
gauen beha ta beha egonak baitita).

Desager gaitezen konpromisoen mapatik

Kedarra!

Kedarra eta lurra Mary-rentzat

Soilik kedarra eta lurra gehi lurra

Bere gonape zabalean.

...

Flotatzen geratzen da airean belztua

tximini-garbitzailearen izen azabatxea

eta haren sinadura

Oh Mary!

## Zentzumenen Rita Hayworth

Giroa tanteatzen duzu  
urratu txikiak usnatuz  
antsietate zikloia.

Buhaka hazitako errekaen ubidean  
deabruak mingaina klaskatzen du  
eta beldurrak  
bere kizkurra indartzen.  
Erruletak bira.

Zentzumenen Rita Hayworth  
lerratzen duzu eskularrua  
eta munduak usnatzen du  
edertasunaren hurbiltasuna:  
askatzea trentzak gonak  
mirotzlokartuxeak  
krimen bat eman dezan gabe.

Ez dago ihes gehiagorik  
isiluneetako bidazti errari txiki

ez gehiago txoririk  
dardarka biluzik  
mugetarantz.

## Miss "X"

Oh utz iezadazu eratzten  
aretoko bertso hotzak  
negar egingo banu  
ez lirateke erregistraturik geratuko ere.

Utz iezadazu telebista pizten  
bere realitiekkin gozatzen  
(fortunadun batzuek badute beren bizitza)  
utxidazu ene begizuloak disimulatzen  
hainbertze leiho daude –begi oxidatu-  
esna gauean.  
Ez izan ikararik  
neure iritziak ez du gatazka nazionalik eragiten.

Utz iezadazu Yanira imitatzen  
urrezko itiduna baita  
baliabide-maleta dirdaitsu bat naiz.  
Begiozu nola argitzen duten  
neure begiek? Alderdiaren baderak  
neure azkazalek ez dute sekula airea urratzen.

Eraginkor

eskuizkribuak tatuatzen ditut  
zure izaren izerdi eternalaren gain  
laguntzaile samur mutu  
negozio bidaia saihestezinetan  
irudi artez arteza biraka dabilena  
ohategi aristokratikoetako lujurietan.

Neure biluztasunak

infinitate bertsio hartzen ditu.

Neure belarriak gortzen ditu

burrundara-erlauntza oso batek.

Kongresua abiatua da

gertuzko tximeletak ehizatzer.

# Irlandar begirunegabea

Irlandar begirunegabea

Erorarazi du sorbalda

horren biluztasunak

(Dublingo izarrak bere gudua irabaziz

euritari).

Baina emakumeak nahiago izan zuen urraturen bat

elepideen metal hotza

ikono eztabaidaekin horren atzetik ihes egin

izanik zartatzen duen filosofia

eta kontinentea zeharkatzen duena.

Emakumea nekaturik aingeruen urdin desonestaz

beti *loveohmylove*.

Prest emakumea zerua aiztoen artean sortzeko

dirdaituko dute gaur haren ilargi gorriko oreztak

begien aurrean

eguzki gisa.

## Aisha

Old Delhi-raitzultzeak

erran nahi du

jainkozaharrenusainean arnastea

hotelak

non debekatua dagoen sarrera animalientzat

eta bizimodu txarreko emakumeentzat

hainbertze algoaza eta itxarote neutralizatu!

Utz ezazu maitasun mezu bat

eta erruduntzat joko zaituzte

Erran zizuten

Aisha

ez ezazu dirdai egin

aldendu zaitetz mundutik

oraindik sinesten duzu zentzu onaren lautadetan?

Zure gorputzak leher egiten du

almanake trastornatu

leherketa erreketan

kantua batzuetan bakartia da

eta bizi

diamante bat

hainbertze dirdaitzen du aldentzen denean!



## Malala

Desafio bat bezala

krosko zaharraren legeen aurrean

Malalak ere izena idazten du

eta iparroratzak tartakoa du orratzetan

saguxarrak lez.

Okerren aintziran

bertze ardi batzuek betetzen dute araua

eta atsedean hartzen beren argi zurian.

Sakrifizioa iraunkortu egiten da.

Harbel baten atze ilunean

idazten dut ene izena

MALALA

Ez naiz efigiearen diktadurapean jarriko.

Kraskatu

edo airean igarora musukatu

ezagutzen ez ditudan destinoetan dantzatu.

Malalak bere izena idazten du.

Norantzabioa

harrenmangladian?

## Diktatua

Hor giltzabiratzten dena  
aparbafadetan

Altxorrahondoradua  
eraztuna erian area da  
(ez ez da zurea berezko eskubidez)  
erantsitako behelainoa  
belo bikain gisa  
hondarren gain.

Eta zu  
Venus ausart  
dirdaitzen duzuna zure glose-barran  
aukera nazazu ni  
playboy maitagarri aristokratiko  
egiaz jainkoek koroatu ninduten  
zure mundua eratzeko  
ez duzu fidantzarik zure izarrean ?

Entzun egizu sarrailean bira egiten duen giltza:  
jaguarraren tronuan  
bakardadeak bere mantua erreklamatzten du  
etxe hutsaren kirrinka

Bertze giltza batek zuzenduko du  
ispiluen geografia zailean sartu-sartua dagoena.

## Eskarlata edo euri

Gaur hedatu da bonba.  
nire izena paseatu dute  
hiri guztian zehar  
eta eskarniatu naute.

Melarra eskoba kirtena bulargabea  
gizonzoroa ema zoroa "emakume hori".

Hitzak nigan zuztatu dira  
eta jada ez dakit aingeru naizen edo murru.

Ez ezazu negarrik egin.  
begira neuri  
gizon bera naiz  
emakume bera  
zure oinetara emana  
bihotza garbi.  
zure senar emazte  
maitatu nahi duzuna.

Zin degit jainkoagatik gizon izaten segitzen dudala.  
Gau honetan berrizdira egingen dut  
izar iheskor hotzen neure ohaldean.

*Eskarlata.*

Orain

dei nazazu *Euri*.

## LowCost

Vueling hiritarrak

Ez du nahi bere bigarren azukre koxkorra.

*Lowcost* Maltara

ez du behar fortifikaziorik

mozal ederren

eranste fina

kaiola berezien

-jauregi joniarrak-

lekuan.

Egun batean ibiliko da lizarren artean

men eginen dio

begien lizuntasunari

ur gardenetan.

ChiarakCienfuegos-i buruz hitz eginen dio

eta espezie aromatikoek

bateratzen baitira

jainko eroen maitasunean.

Chiaragazigozoa...

*Ikuspegi eder-bikaina*

*krokodilo inozenturdinberde*

*eta frutufreskoena.*